

zurrunbilo bat egon zen. Gu ezin izan ginen irten uretatik, eta zurrunbiloak itsasora eramán gintuen. Egun batzuk pasatuta itsasoan haizete bat egon zen, eta orain, hemen gaude, ihes egin ezinik.

Astronautak gau osoa eman zuen lamiez pentsatzen, baina ez zuen topatu modurik lamiak errekará bueltatzeko.

Bat-batean obni bat agertu zen. Barruan estralurtar bat zegoen. Astronautak galdetu zion:

– Ahal dituzu eramán lamiak Lurrera, eurek dakiten erreka batera?

Estralurtarrak erantzun zion:

– Ommm, Ommm,Ommm!!!

Lamiek ez zioten ulertzen, baina astronautak bai ulertu ziola." Ez dizut ulertzen" esan nahi zuen.

Ostean astronautak erantzun zion estralurtarrari:

– Ez da ezer gertatzen.

– Ommm, Ommm,Ommm!!! – erantzun zuen berriro estralurtarrak.

Halako batean lamia bat ume bat edukiteko zen eta esan zion astronautari:

– Lagundu ahal diguzu etxe bat egiten? Ume bat izateko naiz, eta oso gutxi falta da.

Astronautak erantzun zuen:

– Noski egingo dudala, baina egurra behar da. Goazen nire ontzira, uste dut egurra daukadala. Hemen dago egurra.

Orduan etxea egiten hasi ziren eta pis-pas batean amaitu zuten.

